

ERABAKIA 2016ko uztailaren 6koa, UPV/EHUKO GERENTEARENA, LANPOSTU BAT EGINKIZUNEN ESLEITZEAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEKO DENA, UNIBERTSITATE HONEN I TALDEKO LAN- KONTRATUDUN LANGILEEN ARTEAN.

L 32

**IKTen arloaren arduraduna
INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA**

EGITEZKO AURREKARIAK

UPV/EHUKo Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko eranskinean aipatzen den lanpostua jubilazio partziala egongo dela aurreikusita dagoenez, Gerentziak lanpostu hori zereginak-esleitzean aldi batez beteko dela iragartzen du, hori guztia Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Kontratuko Langileen III Hitzarmenaren 20 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, eta UPV/EHUKo Errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Erabakiak eman dizkion ahalmenez baliatuz (erabaki hori gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko da, eta 2013ko otsailaren 13ko EHAAn argitaratu zen).

OINARRIAK

Lehen: Deialdiko lanpostua zereginak esleitzearen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratadunen plangintza batzordearen, 2013ko uztailaren 4ko Akordioan araututakoa izango da; hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratadunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioak. Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2013ko uztailaren 18ko bileran berretutakoa.

Aipatutako Akordioa ikus daiteke Administrazio eta zerbitzuetako langiletako web orrialdean / Barne Deialdiak / Lan Kontratupeko Langileak.

Bigarrena: Eskabideak aurkezteko epea deialdia EHUKo web orrian argitatatzen den hurrengo egunetik bost lanegunetan amaituko da, eta pertsonalerako gerenteordetzara zuzendu beharko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko erregistro orokorrean aurkeztuz edo, era berean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio-Prozedura bateratuari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (azaroaren 27ko Estatu Aldizkari Ofizialean) 38.4 artikuluan jasotako beste edozein bide erabiliz.

Euskal Herriko Unibertsitateko erregistroak zehazten dira Euskal Herriko Unibertsitateko 2012ko maiatzaren 16ko erabakian daude jasota (2012ko ekainaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eta Interneteko helbide honetan: http://www.ehu.es/erregistroko_bulegoak.html

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusetan kokatutako erregistroen irekiera-ordutegia, astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara izango da, goizeko ordutegian eta 15:00etatik 16:30etara arratsaldeko ordutegian. Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Santuko eta Eguberrietako txandetan, ordutegia 9:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da.

Hirugarrena: Eranskinean adieraziko diren baldintzak betetzen dituzten lan-kontratadun langileek eskatu ahal izango dute erabaki honen bidez lehiaketara ateratzen den lanpostua aldi batez betetzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean lehiatzaileek baldintza eta betebeharrak guztiak beteta izan beharko dituzte.

Laugarrena: Balioztatu beharreko merezimenduak Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen, 2013ko uztailaren 4ko Akordioan araututakoak izango dira, hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioan, bertan ezarritako mugen barruan.

Eskariak aurkezteko epearen amaierako egunean betetzen diren merezimenduak besterik ez dira aintzat hartuko.

Bosgarrena: Eskararekin batera, izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita lehiatzaileek beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta titulu akademikoak egiaztatu behar izango dituzte, 2013ko uztailaren 4ko akordioan 5.4 puntu esandakoa salbu.

Euskal Herriko Unibertsitateak ofizioz balioetsiko ditu antzinatasunari eta Euskal Herriko Unibertsitateko lan eginiko zerbitzuei dagozkion merituenak.

Seigarrena: Deialdi honetan parte hartzen dutenek uko egin diezaiokete deialdian parte hartzeari behin-behineko puntuazioaren aurkako erreklamazioa aurkezteko epea amaitzen den egun arte. Gero, esleipenari uko egiten badiote, AZP lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzko akordioaren 4.1.1 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra lan-auzibidera jo aurreko erreklamazioa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean hilabeteko epean. Hilabete igaro eta ebazpena jakinarazi ez badiote langileak ezetsizat jo dezake erreklamazioa. Erreklamazioari ezezkua eman ez gero, edo ebazpenik jakinarazi gabe hilabete igaroz gero, epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, aurretiazko erreklamazioa ukatu dela jakinarazten den egunetik edo administrazio-isiltasunez ukatutzat jotzen den egunetik kontatuta. Hori guztia, 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 125. artikuluan eta urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69.2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioa, 2016ko uztailaren 6an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia
(2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

GERENTEA,

Miren Lorea Bilbao Arteche



I. ERANSKINA

2016ko uztailaren 6ko EGINKIZUNEN ESLEIPENA deialdiaren Erabakia

Lanpostua:	IKTen arloaren arduraduna
Erref:	L 32
Zenbatgarrena:	3
Lanaldia:	Arautua
Taldea:	I
Kategoria Profesional:	IKTko goi mailako teknikaria
Espezialitatea:	Sistemen Informatika
Maila:	25
HE:	3
Langunea:	INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA
Campus:	GIPUZKOA
BE:	

Lanpostua aldi batez betetzeko baldintzak

1.-Eginkizunak esleitzeko deialdietan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- UPV/EHUko lan kontratudun langile finkoa izatea eta jarduneko zerbitzuan egotea edo nahitaezko eszedentzian, seme-alabak zaintzeko eszedentzian, edo beste administrazio publiko batean aritzeko eszedentzian egonik edo borondatezko eszedentzia hartuta egonik lanera itzultzea eskatu izana (eszedentzian eman beharreko gutxieneko denbora behin igarota azken kasuan), betiere, deialdia egin aurreko urtean prozedura honen bidez izapidetutako eginkizunen esleipenerako izendapenik izan ez badu.
- Esleitu nahi diren eginkizunak dituen lanpostuko talde, kategoria eta espezialitate berekoa izatea, lanpostua talde bitara irekita dagoenean izan ezik; kasu horretan bi taldeetako edozeinetako lan kontratudun langileek parte hartu ahal izango dute.
- UPV/EHUko aldi baterako lan kontratudun langileek ere deialdi hauetan parte hartu ahal izango dute 4.1.2 atalean ezarritako baldintza betetzen badute, baina eginkizunen esleipenerako lan kontratudun langile finkorik egon ezean baino ez dituzte aukeratuko.